

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2014.09.30**

Tolosako Udaletxean, 2014ko irailaren 30ean, arratsaldeko 7,30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 30 de septiembre de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria  
Hasier De los Rios Soraluze  
Igor Ezenarro Balda  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Mikel Arreseigor Astibia  
Rosa Maria Urkola Irigoyen  
Jon Koldobika Arsuaga Artola  
Ainhoa Etxeberria Aranburu  
Olatz Peon Ormazabal

Jon Aldazabal Etxeberria  
Miren Ezkiaga Etxezarreta  
Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Beloso  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Behin behineko Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Behin behineko Kontuhartzaitza:

Paulino Alonso Eraso.

1.- Ondorengo akta onartzea:

2014ko uztailaren 29ko Osoko Bilkurakoa

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

1.- Aprobación de la siguientes acta:

Sesión Ordinaria de 29 de julio de 2014.

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

2014ko uztailaren 1etik abuztuaren 29ra  
(964/2014-1192/2014).

Del 1 de julio al 29 de agosto de 2014  
(964/2014-1192/2014).

3.- Lanpostu zerrenda aldaketa:  
Zergabiltzaile lanpostuaren hizkuntz  
eskakizuna aldatzea.

3.- Modificación de la relación de puestos  
de trabajo:

Cambio de perfil lingüístico en el  
puesto de recaudador.

4.- KUTXAri buruzko mozioa.

4.- Moción sobre KUTXA.

5.- Alkateen aukerakea zuzenerako  
proposamenen aurrean mozioa.

5.- Moción ante la propuesta de elección  
directa de alcaldías

6.- Galde-eskeak.

6.- Ruegos y preguntas.

### 1.- Ondorengo akta onartzea:

### 1.- Aprobación de la siguientes acta:

2014ko uztailaren 29ko Osoko Bilkurakoa

Sesión Ordinaria de 29 de julio de 2014.

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da, xehetasun honekin:

- 2014ko maiatzaren 13koa:

... .. Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:-k, eskatuta zuzenketa hau egin da:

*“13. orrian, interbentzioan, bigarren paragrafoan ,Tu lo has dicho (a Iñaki) azaldu beharreak: Tu lo has dicho (al representante del Pueblo Palestino), esango da.*

Beraz, hitz horiek sartu dira.

### 2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

### 2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

2014ko uztailaren 1etik abuztuaren 29ra  
(964/2014-1192/2014).

Del 1 de julio al 29 de agosto de 2014  
(964/2014-1192/2014).

Alkatetzak, 2014ko uztailaren 1etik abuztuaren 30era bitartean (964/2014-1192/2014) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira eta denak ados agertu dira.

**3.- Lanpostu zerrenda aldaketa:**

Zergabiltzaile lanpostuaren hizkuntz eskakizuna aldatzea.

**3.- Modificación de la relación de puestos de trabajo:**

Cambio de perfil lingüístico en el puesto de recaudador.

Zergabiltzaile lanpostuaren titularra jubilatzeaz dagoenez, bere lanpostuaren ezaugarrietan aldaketa nagusi bat proposatu da, alegia, bigarren hizkuntz eskakizuna izatetik, hirugarrena jartzeko proposamena egin da, udaleko "C1" taldeko administrari guztiak duten moduan.

Halaber, Hizkuntz Politikarako Sailordetzari ere derrigorrezkoa den txostena eskatu zaio bere oneritzia eman dezan.

Hortaz, Giza baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak jaulkitako diktamena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**Lehenik.-** Zergabiltzaile lanpostuaren hizkuntz eskakizunaren aldeketan onartzea, hirugarrena hizkuntz eskakizuna jarriaz. Derrigorrezko data 2014ko irailaren 30koa izango da.

**Bigarrenik.-** Aldaketa hau Udaleko Lanpostu zerrendan onartu eta isladatzea.

#### **4.- KUTXAri buruzko mozioa.**

#### **4.- Moción sobre KUTXA**

Idazkariak EAJ-PSEko ordezkariak aurkeztutako mozioa irakurri du:

*“1.- Udalbatzak bere aitortza erakusten du ehun urte baino gehiagoko historian zehar Kutxak egindako lanagatik, bere gizarte lanagatik, bere finantza jardueragatik eta gure Lurraídearen garapen ekonomiko eta sozialean ízandako inplikazioagatik, finantza eragile nagusi moduan.*

*2.- Udalbatza, Espainiako finantza sisteman gertatzen arí den berregituratzearen aurrean, Kutxa banku fundazio bihurtzearen alde agertzen da, aurrezki kutxa eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legea betetzeko, eta, alde horretatik, gobernu organoei eskatzen die beharrezko izapideei ekitea, bihurtze hori Legeak xedaturiko epe eta terminoen arabera gertatzeko.*

*3.- Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko 26/2013 Legeak ezarritakoa betez, aurrezki kutxei buruzko euskai iegedia egoki dezala eta banku fundazioei buruzko iege propioa gara dezala, legegíntzako izapidetzeak ahalbidetzen duen ahalik eta azkarren eta, nolana ere, ekitaldi honetan.*

*4.- Udalbatzak, Kutxaren gizarte jardueraren etorkizuna defendatzen du, bai eta Lurraídearen garapen ekonomiko eta sozialarekiko duen konpromisoaren jarraipena, Kutxako edo banku Fundazioko gobernu organoetan jzango duen ordezkariaren bidez, eta Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio gauza bera egin dezala.*

*5.- Udalbatzak Kutxako gobernu organoei eskatzen die aurrezki kutxa banku fundazio bihurtzeko prozesuan gardentasunez jokatzeko, indarrean dagoen legedia estu betez eta banku fundazioaren patronatuan Gipuzkoako gizartearen gehiengoa eta aniztasuna errespetuz ordezkatuta egoteko hastapenarekin bat.*

6.- Udalbatzak adierazten du Kutxaren eginkizunak etorkizunean ere izan behar duela duen ondarea kudeatzea iurralderekiko konpromisoa irizpide erabilia, ekonomi eta "gizarte garapena sustatuz, aipatu ondarearen etekinak Gizarte Ekintzara bideratuta, iehentasuntzat izanik aipatu ondarea babestu eta handitzea, eta lurraldearekiko konpromisoaren erakusgarri, Kutxabanken kontrola Euskadin egoten laguntzen duela."

Jarraian, Idazkariak EH-Bilduk aurkeztutako mozioa irakurri du:

*"Ia 150 urte inguru pasatu dira Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Aldundiak Caja de Ahorros de San Sebastian eta Caja de Ahorros de Gipuzkoa sortu zituztenetik. Zaiantzarik ez dago, eta historian errepasso txiki bat ematea nahikoa litzateke, kutxa horiek sortu zirenean, hasieratik, funtzio publiko eta sozial bat betetzeko sortu zirela.*

*Funtsean, honokoa zen aipaturiko helburu eta funtzio publiko eta soziala: bertako herritarren aurrezkiak, bertan inbertituak izateko apustua bermatzea. Horretarako, herritarrei eta familiei finantza-zerbitzua eskaini, bertako enpresari txikiei finantziarioa bermatu, udaien finantziario eta inbertsioetan lagundu, bertako ekonomiarentzat estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bultzatu eta hori gutxi baiitz, lortutako etekinak gizarte-ekintzan inbertitzea izan dute kutxek urteetan helburu.*

*Une honetan ordea, erraz esan dezakegu kutxen bategitetik sortu den Kutxabanken ildoak ez dela bertako herritarrei eta ekonomiari begirako funtzio publiko eta sozialabetetzen ari. Aitzitik, negozio hutsa eta bidegabea da besterik gabe bultzatzen ari dena. Hori gutxi baiitz, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta jada iragarri den pribatizazioaren biderei ateak ireki dakizkioke, aipaturiko funtzio publiko eta sozial hori behin betirako desagerraraziz.*

*Historikoki bete duten funtzioagatik, zein egungo egoera ekonomiko zailean bete beharko luketen funtzioagatik, garrantzitsua da oso bestelako norabidean doan*

*bidé berri bati ekitea eta hortxe kokatzen ditugu hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen proposamenaren helburuak. Horrexe diote hitzez hitz:*

- 1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu.*
- 2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutxabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatuz.*
- 3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.*
- 4. Bertako ekonomia errealaren mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:*

*Bertako autonomoei, merkatariei, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziazioa bermatzea.*

*Udalei aurreikusi ditzaketen inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintzea. Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kaleratzeak edota IRPH bezalako jardurekin amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintzea.*

*Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitartekoen ikuspuntutik, zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.*

*Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berrestea eta betetzea eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertzea eta garatzea.*

*Kutxa banku-fundazio batean ez bihurtzeko eta aipatu helburu horien norabidean arituko diren kutxak eta Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioen eskualdatze-prozesu bat proposatu du, hain zuzen ere, izaera publiko eta soziala ahalbideratzen duen aukera erreal, legal eta eraginkor gisa.*

*Hori guztia kontutan hartuta Tolosako Udalak honoko erabakiak hartzen ditu;*

*1.- Tolosako Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat aïdarhkatu nahi du.*

*2.- Tolosako Udalak Kutxaren eta Kutxabanken izaera publiiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.*

*3- Norabide horretan, Tolosako Udalak Kutxako batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertakoinstituzioen izaera publiiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.”*

Mozioen edukia entzun ondoren, partehartzeari ekin diote:

.. Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar:

“Ez da sorpresa izango zuentzako nere postura, hemen askotan aipatu dudalako urte hauetan, eta beti esan dut ondamendirako bide bat dela Kutxan fusio prozesua eta gogoratu behar dut Aralarrek hasiera hasieratik kontra egin ziola prozesu honi, eta batzarreko ordezkartzan, kontrako botoa eman zuen bakarrenetakoa izan zela.

Bai EAJ eta PSE-ren mozioan aipatzen da hemengo ekonomia eta ez dakit zer, baina egia esan, irakurtzen duzunean Mario Fernandez jauna esanaz kapitala boltsa atera behar dela eta,

kapitalaren erdia baino gehiago boltsan sartuko dela, %30a izango dela hemengo jatorriz sortzailen kuota kapital horretan, berehala BBVA etortzen zaizu gogora eta badakizue BBVA non dagoen: Madrilen, eta noren mesedetan egiten duen lan, ez Euskal Herriaren mesedetan, beste interesen mesedetan baizik.

Egia esan, nire hitzak erabil ditzazket, baina oso paper interesgarria publikatu zuen Ekai Centerrek joan den abuztuaren 23an, izena ere, esanguratsua: "Alta traición". Bat egiten dut paper honekin eta hau hartuko dut diskurtso bezala. Azkeneko puntu horrek erakusten du zertara garamatzen: batzuk sartu gaituzten ondamendira abentura honekin"

Aipatutako idatzia hau da:

*"1) Aunque la expresión pueda parecer fuerte, la operación puesta en marcha en el País Vasco por los partidos políticos tradicionales para apropiarse de las cajas de ahorros reúne todas las características necesarias para ser calificada como de alta traición. Alta traición, de cada uno de los responsables políticos implicados, en dos sentidos. Por un lado, traición a su propia ideología y, por otro lado, alta traición al conjunto de los ciudadanos de su país.*

*2) La destrucción del sistema de las cajas de ahorros vascas es, en primer lugar, una traición, puesto que, siguiendo al diccionario, debemos entender por traición "la falta que se comete quebrantando la fidelidad o lealtad debidas". En este caso, la fidelidad o lealtad debidas a los ciudadanos que les han elegido y a los afiliados y votantes de sus propios partidos.*

*3) Como se sabe, la operación puesta en marcha consiste en hacer desaparecer el control público y social de las cajas para poner al mando de las mismas a un reducido grupo de personas "de confianza" de la actual élite política vasca, blindadas frente a cualquier tipo de control externo.*

*4) A través de esta operación se destruyen las bases del futuro de la economía vasca y, con ellas, las bases del futuro del país. Una barbaridad que sólo puede ser calificada como traición por distintas razones.*



- 5) *La primera de ellas es la inexistencia de ninguna razón técnica, financiera o legal que justifique lo que se está haciendo. Ni siquiera que pueda considerarse como un pretexto o una excusa mínimamente presentable para intentar justificar este desastre.*
- 6) *La segunda razón que justifica la calificación de esta operación como de "traición" es la evidencia de que la élite política vasca es perfectamente consciente de lo que está haciendo. La dialéctica política desarrollada durante los últimos meses deja meridianamente claro que nuestros líderes políticos saben sin lugar a dudas que no existe ningún tipo de justificación legal o financiera detrás de esta operación y que el objetivo de la misma responde estrictamente a los términos de "sustracción" y "apropiación". Se pretende sustraer a la sociedad vasca las bases de su estructura económica y se pretende, literalmente, "apropiarse" de las cajas de ahorros.*
- 7) *La élite política vasca que ha liderado esta operación es también perfectamente consciente del carácter ilegítimo de la misma.*
- 8) *Intentando explicar lo inexplicable, la élite política vasca se está viendo obligada a recurrir a un engaño sistemático a su propio pueblo, de cuyo sistema financiero pretende apropiarse. Los líderes políticos son perfectamente conscientes del disparate que esta operación supone y no han visto otra salida mediática que repetir una y otra vez que la misma es legalmente obligatoria, lo cual saben perfectamente que es radicalmente falso.*
- 9) *Los líderes políticos vascos, que deberían ser los principales defensores de los intereses generales, han sido nombrados para los puestos que desempeñan precisamente porque si algo se espera de ellos es que defiendan a su pueblo.*
- 10) *Sin embargo, al contrario, los partidos políticos tradicionales han decidido traicionar a su pueblo y hacer uso del poder que les otorga su cargo para apropiarse ilegítimamente de las bases del sistema financiero vasco.*
- 11) *Los dirigentes de los partidos políticos tradicionales son perfectamente conscientes de que no existe ningún tipo de justificación política o ideológica que pueda legitimar*

*lo que están haciendo y que, a! contrario, se trata de una maniobra estrictamente dirigida a un objetivo de acumulación de poder personal en los grupos de confianza de los líderes políticos de los partidos tradicionales.*

*12) La traición que esta operación supone al conjunto de ciudadanos de este pueblo merece además ser calificada como de "alta traición". Las razones son claras. Se basan en que a la deslealtad, a la quiebra del compromiso debido y a la plena consciencia de la ilegitimidad del proceso, hay que añadir la extraordinaria trascendencia de esta operación para el futuro de este país. Y no sólo para su sistema financiero, sino para el conjunto de su economía y para el futuro de su propia sociedad. Con esta operación se está comprometiendo la eficiencia de nuestro sistema financiero y el tradicional compromiso de este país con la economía productiva, se está apostando por la financiarización y la oligarquización de la economía y de la sociedad y comprometiendo también el propio carácter democrático de la sociedad vasca. A partir de ahora, el País Vasco lo va a tener muy difícil para escapar de un futuro configurado por una sociedad financiarizada y oligárquica. Precisamente de lo que todo Occidente está intentando huir. Si esto no es alta traición, se le parece mucho."*

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

“Nere aldetik ez ditut errepikatuko gure mozioan azaltzen diren argumentuak; bakarrik esan gizarte ekintzak bermatuta daudela prozesu horretan eta hori dela guretzat garrantzitsuena eta, bestetik, Bilduk egiten duen proposamenari buruz, bakarrik gogoratu Larraitz Ugartek esan duen bezala eta onartu duen bezala: aldundiaren proposamenaren ondorio juridikoak eta fiskalak ez direla ezagutzen, ez dakitela proposamena nola eman daitekeen aurrera eta hori esanik dena esanda dago.”

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

“Guk berretsi egiten dugu gaur sartu dugun mozio honetan, hau ekainean ere sartu genuen plenoan, eta hori bera da gaur sartu duguna, berretsi egin nahi dugulako gure mezua. Zenbait ñabardura egin nahiko genituzke Kutzaren inguruan. Bilduk aurkeztu

duen horretan nik uste dut batzutan nahastu egiten dela Kutxa eta Kutxabank, baina ulertu daiteke zeren inguruan dabilzan hitzegiten. Esaten da pribatizazioari bidea irekitzen zaiola eta hor esan beharra dagoena da, garai batean Kutxa ezberdinen lurraldeko fusioa defenditu baldin bazen, zenbait alderdien partetik ere, pentsatu behar dugula entitate finantziero fuerteak behar ditugula hemen eta horri begira lan egin behar dugula.

Bestalde, esan behar da inportantea dela Kontrola mantentzea, hori da zaindu behar duguna; zer gertatu den BBVA-n eta EKAI Center-ek esaten duen etorkizun mesianiko horri buruz, alde batetik hemen egon da erreskate bat; erreskate horren baitan behartu egin dute Estatu baldintza batzuk asumitzera entitate finantzieroei dirua emateko. Hori ez da pasa Alemanian, hemen pasa da hori, eta hortik ezin zara atera esaten da; legea bete gabe egin daiteke, eta ezin da, eta denok dakigu, baina ez dugu hori aitortu nahi. Bilatzen ari gara beste alternatiba batzuk. Bazeuden beste bide batzuk, baina ez dago beste biderik. Estatuan denak sartu dira bide horretatik. Sor litezkeen irtenbideak denak galera ekartzen diete Kutxei eta hori nabarmena da, ez dago beste biderik.

Badaki diputazioak ez dela legezkoa, hor ez dago beste biderik. Ez da bide bat orain hasten. Bide hau aspaldi hasi zen 2012an, eta hemen begiratzen ari gara beste soluzio batzuk egon litezkeen. Baina hemen inportanteena da kontrola hemen gelditzea. Nik uste dut horretaz baliatu behar garela Kutxabank bera eta Kutxa indartzeko. Ondarea indartzeko, entitate finantzieroei erregantagarritasuna ateratzeko, gizarte ekintzan diru gehiago inbertitzeko, nik uste dut hor denok hor ados gaudela. Kontrola hemen gelditu behar da, horretan ez dago inolako ez adostasunik, hori nahi nuke azaldu, gero badaude beste zenbait eduki aipatzen direnak, IRPH-aren aplikazio eta abar, baina gaur egun indize horiek ez daude martxan hor badaude zenbait kontu ere argitzeko.

... Lore Agirre Zipitria, Bildu:

Aurkeztutako mozio horrekin, egia da lehenengo puntuarekin ados egon gaitzkeela aitortzen dugula. Guk ere bai, orain arte Kutxak egindako lana aitortzen dugu. Azken batean, mozio hau aurkeztearen helburua eta baita Aldundiak aurkeztu duen proposamena, horrela jarraitzea nahiko genukeelako da.

Gezur dexente ateratzen ari dira. Kutxarekin egiten ari zaretena lapurreta bat da, herriari lapurtzen ari zarete, iritzi publikoa manipulatu duzue. Orain aipatu duzun bezela, IRPH-arena, Gipuzkoa Burubatzarreko Maria Eugenia Arrizabalagak oraindik ez du Twitterren akklaratu, baina baita aipatu zuen nola Kutxak ia hori deseginda zeukan eta erantzun zitzaion ezetz.

Lapurreta hau burutzeko gezurra erabiltzen ari zarete gutxi batzuen interesak zuen interes propioak inposatzeko iruzurra egiten ari zarete.

Ekainean osoko bilkuran eztabaidatu genuen baita gai honen inguruan. Orduan, administrazio kontseiluko ordezkari bat etorri zen azalpenak ematera eta berak ere, horrela zioen: erokeri bat zela egitea zihoazena, proposatzen ari zinatena; bazegoela beste alternatiba bat, banku fundazioa ez dagoela zertan bihurtu beharrik eta hori ere badakizue, fundazioa arrunt bilakatu daiteke akzioen zesio bat eman instituzio publikoei eta martxa berdinean jarraitu.

Eta hau da Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako azterketa baten ondorioz esku artean izan duzuen proposamena, edo bai PNVk bai PSEk izan duen proposamena, fundazio arrunt izan daiteke, ez dago zertan banku fundazioa izan beharrik. Fundazio arrunt izanda Kutxaren izaera publikoa soziala bermatzen da. Hasieran kutxak zeuzkan helburuak berreskuratzen dira, Euskal Herriari etorkizuneko eraikitzeke finantza tasa publikoa bermatzen da, benetako ekonomia errealaren mesedetan arituko den Kutxa izan dezakegu, eskualdeko errealitateari erantzungo diona, udalei finantza baliabideak eskainiko dizkiena, Kutxen sorreran egon zen langieekiko eta familiekiko begirunea berreskuratuko duena eta etxekaleratzeak eta IRPH-ko bezalako jarduerekin amaituko duena eta benetan gizarte ekintzarako konpromisoa izango duena. Baina dirudienez, hau zuek ez duzue nahi, horregatik adostu zenuten 2013ko urte amaiera horretan PPrekin batera 26/2013 lege hau.

PNV eta PP ren arteko akordio horrek aurrezki kutxen izaera publikoa desagertzea zeukan helburu eta bide hori egiten ari zarete. Azken batean izan da alderdi popularrak espainiar estatuan eman duen bidea eta dirudienez zuek zarete hemen PPren apendizera bilakatu zarete Euskal Herrian lege hori defendatzeko eta nahi eta behar izan duzuen

guztitan Xabier Iturberen kalitatezko botoa erabili duzue zuen erabaki guztiak inposatzen joateko.

Kutxabank beste edozein banku moduan kudeatu nahi duzue. Berdin zaizue Kutxa izan edo Banco Santander izan.

Aipatzen zenuena pixkat, ez dagoela beste proposamenik, ez dagoela juridikoki ez dela aztertu baina esku artean izan duzue aldundiaren proposamena bere momentuan Kutxak ere estatutuak egiterakoan dirudienez PriceWaterhouseCoopers-ek burutu zuenean lehenengo zirriborroa, Aldundiaren proposamena hau ere PriceWaterhouseCoopers enpresa berdinari eman zaio aztertzeko eta argi eta garbi adierazi du ez dela legez kanponkoa, oraintxe entzun dizut berriz legez kanpoko dela esaten, ez da legez kanpoko.

Eta begira gainera estatuak egin dituen enpresa berdinak egin baldin badu azterketa hau egia da aipatzen duela enpresa honek hutsuneak baliatzen direla alternatiba aurkezteko baina noski, alternatiba aurkezteko horrela baliatu behar da.

Berriro diot legez kanpoko ez da, erabat legezkoa da proposamen hau, beraz nahi baldin baduzue, aukera badago izaera publikoa eta soziala mantentzeko, zuek nahi baldin baduzue.

Nahiago dirudienez, eta orain arte ematen ari zareten bide honetan, nahiago duzue inorren ordezkari ez diren 15 patrono izendatu eta erabakiak bere eskutan uztea. Gero aipatzen duzue nonbaiten gardentasuna; ez dakit gardentasuna nola eman nahi duzuen hemendik aurrea 15 kideek erabakiko dutenean etorkizuna.

Aukera bat dago ekonomia errealaren mesedetan arituko den Kutxabank izateko, eskualdeko errealitateari lotua, beti ere zuek hala nahi baldin baduzue. Nahiago baldin baduzue kanpoko enpresei lagundu, multinazionalei, AHT bezelako makroazpiegiturei, ba bide onetik zoazte.

Aukera bat dago langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratu eta etxekaleratzeak eta IRPH bezelako jarduerak amaitzeko, hau ere, zuek nahiago baldin baduzue.

Pribatizazioen bidetik jarraitzen baldin baduzue, bankarizazio bidetik jarraitzen baduzue, gutxiengoaren mesedetan jarraituko duzue zuen poltsikoak betetzen.

Guzti honekin berriro ere agerian geratzen da, bi eredu sozial eta politikoen arteko talka, eskuinaren eta ezkeraren arteko talka, argi gelditzen da beste behin ere PNVren gizarte eredua, eskuinaren gizarte eredua, privatizazioan oinarritzen dela; bai kasu honetan, finantzi arloan, bai beste zenbaitetan hitzegin dugun gizarte zerbitzuak osasungintzan. Dena privatizazioatzeko bidean zoazte, gizartearen etorkizuna teknokrata eta elite finantzieroen esku utzi nahi duzue. Badago beste alternatiba bat.

EH- Bildutik eredu publiko eta soziala eraiki nahi dugu, herritako beharrak eta familiekiko behar ekonomiko finantzieroak erantzungo dituen.

Hala ere, hau guzti horren gainetik erokeria oraindik eta handiago da iruditzen zait. Nik ez dut ulertzen nola iritsi zareten honeraino, nola banku fundazioa bilakatzea iritsi zeraten, nola kontrol publikoari ateak itxi nahi diozuten. Orduan ere, (aurreko pleno bati buruz ari da) administrazioko kontseiluko kideak hala zioen: hanka sartze ikaragarria bat egiten ari zinatela.

Hori desegiten ari zarete. Hori bai, garaiz zaudete oraindik, oraindik borondate politikoa baldin badaukazue urte amaiera arte denbora dago.

Orain ere eskatu zaizue; bi proposamenak izan dituzte alderdiek edo administrazio kontseiluan egon diren bi proposamenak eta eskatu da eztabaidatzea, gardentasuna, eta eztabaidari uko egin diozue, oraindik garaiz zaudete. Goazen irekitzea eztabaida, goazen bi proposamenak aztertzea eta guzti honi buelta ematea, bestela lapurreta honen konplizeak izango zarete.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

Begira ez dizut puntuz puntu erantzungo, zer hor daukazun paper hori itsura guztia dauka udal guztietan banatu dela eta tokatzen zaionak irakurri egin behar duela.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Hori itzela, errepetu falta da hori.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

Utziko didak bukatzen, zer hor esana da lapurretan gabiltzala, gezurretan gabiltzala, gure poltsikoak betetzen gabiltzala, horrelakoak esan dira hor.

Guri esaten zabilta hori, ez dizut erantzuten, pentsatzen dudalako ez zarela horrekin identifikatzen, inoiz ez delako hitzegin termino hauetan gai honetaz.

... Lore Agirre Zipitria, Bildu:

Eskatuko genizuke errespetua, hau neronek idatzitakoa da, gaur arratsaldean. Ez naiz zuei hitzegien ari, ni EH-BILDUko ordezkaria naiz zuek PNV-ko ordezkariak, ez, orduan ez zaitezte aludituta sentitu.

PNV bide bat ematen ari da eta horren ondorioak jasango ditugu etorkizunean.

Eta gezurra, noski, beriro errepikatzen dut. Zeuk esan duzu legez kanpokoa dela proposamena eta ez da legez kanpokoa eta zuek badakizue, EAJ-k badaki.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

Ez dizut errekonozitzen hitz horietan, nik behintzat.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Nik kontu pare bat zehaztu nahi nituzke. Zuei entzuten ari naizen bitartean harrিতuta nago, egia esan. Ez dut ulertzen nik gai honi jarraipena ematen dioten neurrian eta geroz eta gehiago irakurri eta geroz eta gehiago entzun, gutxiago ulertzen dut. Hemen zuek plantzeatzen duzuen mozioan eskatzen diozue Eusko Jaurlaritzari aurrezki kutxari buruzko legedia egiteko, baina zuek izan zarete, EAJ eta PP, Madrilen hau dena sustatu duen legearen alde bozkatu duzuenak. Beraz, gero Eusko Jaurlaritzari eskatzea hori egitea. Zuek izan zarete Madrilen aldeko bozka eman duzuenak, ez zuek (PSEko ordezkariari), baino bai EAJ-k. Ikusi da eskuninak nola elkartu diren. Ez dut ulertzen EAJren papera, finantza tresna bat behar duelako herri batek bere etorkizunean soberania lantzeko, garatzeko, bere ekonomia garatzeko. Ez dut ulertzen nola alderdi

abertzale batek bizkar eman diezaiokeen horrelako tresna bati. Izugarri hanka sartzea. Hanka sartze izugarri garatzen, etorkizunean pertsatuko duguna eta iraganera begira pentsatzen nola iritsi ginen puntu honetara. Ez dut ulertzen nola ezkerreko ikuspegi batetik, esku publikoan dagoen administrazio entitate bat, lapurtu, eskuz aldatu edo edozein nahi duzuen hitza erabiltzeko. Ez dut ulertzen, ez PSOEn jarrera ez eta CCOO-ena lotsagarria iruditzen zait, gardetasuna ez da eman hemen. Esaten duzue gizarte ekintza bermatuta dagoela, nola? esaten duzue, eta entzuten dizuet entitate finantzieroa fuerte behar duela; noski, baina handitasunak ez du fuerte izatera ematen. Handitasunak tamaina ez dakar; alderantziz malgutasuna dakar txikitasunak eta txiki izatea agian askoz hobeto da eta daukazu txikitasun horretan ondo kudeatzea, eta ez Kutzak bere garaian egin zuena egitea Almerian.

Hemen gipuzkoarrok, eskuin ezker, ari garen botere galera prozesu honekin; guztia izugarria da; agian, hemen Bizkaitik esana dago. Orain zuen erabakiak Bizkaitik hartuko dira. Ahaztu Kutxabank lehenengo pausotzat hau da kutxak ia eraginkortasun guztia galtzen duela Bizkaiaren mesedetan. Hori asteko; gero Bizkaia galduko duela besteen mesedetan kapitala hazkundera eta akzioen salmenta ematen, ez dut ulertzen fuerte izatea, noski, baina fuerte izateak eta tamainak ez dauka zertan bat eginik. Eta gero kontrola bermatu, noski, denak kontrola bermatu nahi dugu, eta nola? 15 konpromisario izendatzen? eta konpromisario hauen ondorengoak beraiek izendatzen? baina hemen ari gara sortzen elite berri bat hemen erregeek eta monarkia berri bat ari gara sortzen entitate finantzierotan, elite finantzierotan; ez dut ulertzen nola alderdi politiko batzuk hau proposatzera iritsi daitezkeen.

IRPH-arena, gezurra. Prozesu guzti honetan mila bider errepikatzen ari dira zenbait komunikabideen laguntzarekin gezurra diren ideia oso simpleak egi bilakatu asmoz eta hori da latza, ez dagoela beste biderik. Gezurra. Hemen bere garaian legeak eskatzen zuela zen argumentoa, lege marabiloso horrek, zeinak zuek onartu zenuten, legeak eskatze omen zuen gero Alemanian ez da legea berdin interpretatzen erreskate esaten duzue baina legea europatikan dator. Berdina da hemen. Zuek onartu zenuten legearen izaera Gipuzkoako Foru Aldundiak proposamena egiten du eta Lorek oso ondo esan duen bezala PriceWaterhouseCoopers-k esaten du legekoa dela. Legeari zuloa bilatu diote,



baina legeari zuloa bilatzea zen helburua, ze jakin, bagenekien eskubiak zer bilatzen zuen eta zer bilatzen duen: pribatizazioa.

Administrazio kontseiluak ez dauka gaitasunik kontrako txosten bat egiteko esanaz Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskaera legez kontrakoa dela eta orduan argumentua aldatzen da eta Foru Aldundiari desakreditatzeari ekiten zaio. Ia ETB-n ez du esaten Foru Aldundiaren proposamena dela Bildu-ren proposamena dela; barkatu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Martin Garitanok aurkeztutako proposamen bat da; orduan erokeria bat da eta botatzen dira halako ideia sinpleak, ez du zentzurik, eta azkenekoa, berandu iristen da.

Berandu borondate baldin badago ez da berandu eta oraindik aukera badago.

Ez dut ulertzen ze interes egon daitekeen honen atzean horrelako salbajada bat egiteko entitate publiko baten eta daukagun tresna finantziario horren galerarako.

Zuen lehenengo puntua irakurrita, badirudi defuntzio batetaz ari garela Udalbatzak bere aitortza erakusten dio ehun urte baino gehiagoko historioan.... ez ditzagun aitortza erakutsi, jarrai dezagun, jarrai dezala tresna hori martxan, jarrai dezala izaten izan behar duena, hau da, etekinak bideratzen edo maileguak ematen hemengo familiei, enpresariei beharrean daudelako eta hemengo udalei noski. Ez dut ulertzen zergatik sartu garen zulo honetan, non gerora etorkizunean damutuko garen eta damutzea gero berriz ere hainbeste kostatu zeren tresna hau berregiten hainbeste kostatuko zaigu, benetan, uste dut oso bide txarra hartzen dugula eta ari garela hipotekatzen herri honen etorkizuna, benetan

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

Hori denborak esango du. Besterik ez.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Beranduegi izango dela.

Jarraian ,mozioak bozkatu egin dira; hauek izan dira emaitzak:

- EAJ eta PSE-k aurkeztutakoa ez da onartu: Ados daude EAJ eta PSE-ko ordezkariak (8 botu). Kontra Bildu eta Aralar (9 botu).
- EH-Bilduk aurkeztutako mozioa onartua gelditu da. Alde daude Bildu-Aralarreko zinegotziak (9). Kontra EAJ eta PSE-ko ordezkariak (8).

**5.- Alkateen aukerakea zuzenerako proposamenen aurrean mozioa.**

**5.- Moción ante la propuesta de eleccion directa de alcaldías**

Idazkariak adierazpen instituzionala irakurri du, ordezkari guztiek adostutakoa:

<p>1. Tolosako Udalak Madrilgo Gboernuak PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkaturiko zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege aldatetaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen ginetik, PP-ren alderdi interesei erantzutendelako. Norabide horretan, udal honek interes alderdikoak sustaturiko hauteskunde Legearen edozein aldebakarreko aldateta errefusatzeko du.</p>	<p>1. El Ayuntamiento de Tolosa rechaza la reforma de ley que desea llevar a cabo el PP desde el Gobierno de Madrid para proclamar y nombrar alcalde directamente a la persona cabeza de lista de la candidatura más votada. Ya que el PP prioriza sus intereses partidistas por encima de los intereses de municipios y ciudadanía. En este sentido esta corporación rechaza cualquier reforma unilateral de la Ley Electoral promovida por intereses partidistas.</p>
<p>2. Tolosako Udalak Espainiako Gobernuaren presidentetzan helaraziko dio Mozio/Adierazpen Instituzional hau.</p>	<p>2. El Ayuntamiento de Tolosa hará llegar la presente moción/declaración institucional a la Presidencia del Gobierno de España.</p>

Jarraian, partehartze hauek egon dira:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar:

Itxura batean, momentuz izozgailura joan da berriz proposamen hau, baina garbi dago proposamen hau eta PPk legegintzaldi osoan egin dituen beste mugimendu batzuk demostratu dutela PPk demokrasiaren kontzeptua etsi eta eztu nola manejatzen duen beren interesen edo berak konektatzen dituen defentsarako eta hau zen garbi adibide horietako bat.

Bildurrak hauteskundeak galtzeari europar hauteskundearen emaitzen ondoren eta ea zer egiten dugun hau guretzat ez horren kaltegarri izateko. Espero dezagun itxura batean azkeneko astetan izozkailurako mugimenduak hor gelditzea eta benetan estatu honetan plantzeatzen baldin bada hauteskunde sistemaren berregokitze bat aldaketa bat izan dadila demokrazia sakontzeko, herritarren hitza emateko eta "kastak" ebitatzeko.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

Oso labur. Argi dago zer nolako adierazpen instituzionala den eta bakarrik esan hauteskundeak bistan daudenean ezin direla horrelako aldaketak proposatu eta esan alderdikide hutsa dela PP-k proposatzen duena eta erabat ados adierazpen horrekin eta baiezkoa emango diogu.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

Esanak esana daude, PP-ren estrategia da zenbait bere gotorlekutan boterean jarraitzea, bereziki Madrid, Balentzian eta horrelako zenbait hiriburutan eta horretarako prest dago edozein gauza egiteko. Bide hori nahi du hartu ez dakit hartuko duen ala ez, baina bide hori nahi du hartu. Horrelako estrategia neurriko traje horien kontra gaude.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Hauteskunde lege bat, alderdi bati egiten zaion korsea baino inportanteagoa dela, horrek ezartzen dituelako gerora emango diren erabakiak eta emango diren botere erlazioen oinarriak. Argi dagoena lege aldaketa honek, Madriletik inposatzen zaizkigun guztiak bezala, ikuspegi zentralista pribatizatzaile eta interesatua daukala. Alderdi baten interesei erantzuten diola. Alkatea zerrenda bozkatuarena izatea gehiengorik gabe astakeria iruditzen zaigu. Gehiengo horiek hemen eskuratu behar dira, hemen lortu behar dira eta lege hau PP-k proposatzen du bere interesei erantzuten diolako eta beldur bati erantzuten diolako. Gure alderditikan uste dugu hauteskunde legeak horren gainera egon behar duela. Lege organikoak dira. Gainera, ezin direla norberaren interes eta nahien arabera egokitu, nahiz eta jakin guk gure hauteskunde lege propioa garatzera iritsi behar diogun, Euskal Herritik eta Euskal Herriarentzat garatuak eta eginak. Beraz, guk ere alde egin dugu eta bat egiten dugun denok batera aurkeztutako mozioan.

Jarraian bozkatu egin da mozioa eta aho batez onartu egin da.

<b>6.-Erregu-galderak</b>	<b>6.- Ruegos y preguntas</b>
---------------------------	-------------------------------

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Nik egin nahiko nuke aipu txiki bat. Azken finean, denboratxo bat pasa da baina ezin ahaztu abuztuaren 17 an Inaxio Agirre zendu zitzaigula; herrian oso ezaguna, zinegotzi ohia, euskara sustatzaile izugarria, pertsona oso handia, Tolosako Ikastolaren atzean ibili zen gurasoetako bat Tolosako udaleko Euskara Departamentuko sortzaile izatearen arrazoietako eta bultzatzaile nagusienetako bat.

Galera handi bat euskararentzako, Tolosarentzako, eta Euskal Herriarentzako. Orduan, zer gutxiago: hemen berari, berak egindako lanari, errekonozimendua eman, eta sendiari eta Itziar bere emazteari hemendikan besarkada handiena bidaltzea besterik ez.

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar:

Demokrazian herriarena izaten da hitza eta herriak erabakitzeko moduak izan behar ditu. Orain dela bi aste, bai Olatz eta bai ni, Edimburgon egon ginan horrelako ariketa demokratiko eredu baten lekuko, gizarte batean nola eztabaidatu daitezkeen gizartearen etorkizuna, arrazoietan oinarrituta eta modu lasai, baketsu eta tentsiorik gabekoak eta hori eskoziardarrak guri, munduari erakutsi digute.

Tamalez, egun hauetan ere, jakin dugu Espainiako gobernuak, ez bakarrik gobernuak, baizik alderdi nagusiek ere, ez diotela gauza bera egiten utziko Kataluinako herriari. Demokrazia ulertzeko bi modu desberdin.

Tamalez, gu Iberiar peninsulan bizi gara; ez gara britaniar uhartetan bizi eta katalanek ezin izango dute modu txukunean egin azaroaren 9ko kontsultarik.

Espero dut egin ahalik izango dutela eta kataluinako herriak bere etorkizunari buruz erabakia ahal izan dezala, askatasunean, demokratikoki eta inolako eta inongo amenazarik gabe, orain gertatzen ari diren amenazarik gabe.

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNV:

Nik ere, aipatu Eskozioako erreferendunari buruz, han gerturatu garenak eta gero baita komunibadieetan ikusi ditugunak ikusita, gehientsuenak azpimarratu dugula bai baiezkoan eta ezezkoan jendearen artean ze errespetu eta konfiantzazko giroa zegoen.

Ba nik uste dut gaurko plenoan nahiko argi gelditu dela hemen errespetuzko giroa ez dagoela, hori nahi nuen esan aurretik.

Eta bi erregu: bat uste dut erabiltzea twitter bat, ez dakit norena, dokumentu argumentario bat bezala, iruditzen zait heldutasun politiko gutxi edukitzea, ze hemen twitterak denak idazten dituzte eta erabil ahal ditzazkegu pilo bat, alkatearena barne, eta hau bihurtuko litzateke zirko bat eta ez zait egokia iruditu; Eskatuko nuke horrelako aipamenik ez egitea pleno honetan.

Eta beste bat: gaude pixkat arduratuta gaurko plenoko gai zerrenda oso arina izan delako. Egon dira 2 mozio. Ez bat eta ez besteak ez dira udaleko eskuduntzakoak, administrazio ezberdinetan egiten denean eskuduntza banaketa zerbaiteko egiten da. Bihurtu dugu

gure udaletxea parlamentu txiki batean. Bakoitzak bere diskurtsoa botatzeko. Uste dut herrigintzari gehiago begiratu beharko diogula eta horrek arduratzen gaitu eta hori ere aipatu nahi nuke.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Hemendikan aparte ere, Batzordeak egon dira eta saiatu gaitzen bertara agertzen.

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNV:

Ez besterik gabe ze Iñaki Irazabalbetia izan da eurodiputatu bi urtetan eta bi urtetan erabateko gehiengotasuna ez zenutenean gaiak ez ziren sartzen plenoan eta batzordeetan eta ni bakarrik egon naiz. 5 egunetan herritik kanpo. Ez zait iruditzen serio.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Iñakirik gabe ere pleno bat edo besteren bat egin da eta pleno eguna inoiz ez da aldatu. Bat edo besteren aldiz nere bozkarekin ere; Mario Iturbek egiten ez duen bezala, behin bakarrik erabili det alkatearen bozka bikoitza.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

Ildo honetatik proposamen bat egingo dizut :Bozeramailek bilera egiten dugu beti pleno aurretik, egun bertan. Ez dakit proposamenak sartzeko egin daitekeen bozeramaileen bilera aste bat lehenago; ez dakit hori egin daitekeen. Ados nago: hau parlamentu txiki bat dirudi; beste batzuen hitzak errepikatzen ditugu behin eta berriz eta hau ez da herriari ematen diogun interesa, ezertxo ere ez. Plenotan eskatuko genizueke ahal baldin bada edo aste bat lehenago edo ostegun edo asteazken aurretik saiatu hau suspertzen pixkat.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

Nahi izan ezker ostiralean gai zerrenda firmatzen den eguna izaki, 48 orduz aurreratu behar garelako, egin dezakegu batzarra.

Besterik gabe, gaueko bederatzitan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**